



Xipri Arbelbide *Oilarra kukuruka* liburu aurkezten, atzo, Donostian. GORKA RUBIO / FOKU

Kontsumismotik Elizara itzultzeko

Xipri Arbelbidek 'Oilarra kukuruka' liburu argitaratu du, Ereinekin • Elizaren gainbeheraz mintzo da liburuan, eta, krisiaren aitzinean, ebanjelioan «sinistera» bultzatu nahi du

Joana Ibargai Leritza

Duela bost urte idatziriko gutun bat izan zen Xipri Arbelbiderentzat (Heleta, Baxenabarre, 1934) *Oilarra kukuruka* liburu idazteko abiapuntua. Pirinio Atlantiko-eta 60 apezek eginiko gutuna zen, zeinetan Baionako Marc Aillet apezpikuaren egiteko manerak salatzen baitzituzten. Hilabete batzuk lehenago, girstino talde batek jada petizio bat egin zuen Ailleten dimisioa eskatzeko; 2008tik apezpiku da, eta abortuaren kontra egin izan dituen adierazpenek –besteak beste– harribotsa egin zuten ordurako.

Arbelbide bera apezpea da, eta badu liburu andana idatzirik. Ibilbidean eragin dio Aljerian soldadu ibili izanak, eta baita ere Boli Kostan egon izanak hamabi urtez, misiolari eta irakasle. Han idatzi zuen lehen liburua. Geroztik, biderkatu dira haren gogoeta eta esperientzien berri emateko obrak. Aipa daitezke, adibidez, *Enbata* (1996), *Besta Berri* (2001), *Zoriona!* (2005), *Xuri-gorriak* (2007), *Requiem* (2008), *Euskal Elizaren historia* (2014) eta *Garapena gelditu* (2017).

Oilarra kukuruka liburuak Bilboko 20. Miguel de Unamuno saria irabazi du; Ereinek eta Bilboko udaletxeak elkarrekin argitaratu dute, eta atzo aurkeztu zuten, Donostian. Inazio Mujika Ereineko editoreak erran zuen Arbelbidek «beti» izan dituela hainbat interes: «Hainbat eta hainbat interes, hainbat gai, hunkitu dituenak; beti izan ditu interes askotarikoak».

Elizaren gainbehera

«Aipatzen dut Elizaren krisia: nondik heldu den, zerk egiten duen», azaldu du Arbelbidek. Eliza eta Estatua bereizi ziren garaia, iraultzak, gerlak, marxismoa, 1968ko maiatza, Enbataren sorrera eta Euskal Herriko apezten arteko azken hausturak aipatzeraino. Liburuan azaldu du beherrakada aspaldian hasia dela.

Aillet apezpikuaren inguruan sortu eskandaluek eman zioten idazteko arrazoia, hastapen hartan. 60 apezek eginiko gutunak oihartzun handia izan zuen, eta hedabideek hurbiletik eman zuten gertaeraren berri. Alta, Arbelbideren ustez, «etxez etxeko egin behar ziren xuriketak», plaza gainean modu zabalean hedatu baino gehiago. Hala, azken urteotako pataskei garrantzia kendu, eta horrelakoak betitiki gertatu direla oroitarazi du liburuan. Gainera, gaurko gizarteaz «kezkatu» idatzi du liburua.

Hala, Elizaren krisia aipatu du, eta azpimarratu «Mendebaldeko munduaren krisia» dela. «Eliza gaizki doa, gure gizartea gaizki baitoa, heriotzara baitoa. Gure lurra leher egiten ari da».

Oilarra kukuruka

«Jondoni Petri lehenengo apezpikuak Jesus ukatu zuen, eta, orduan, oilarra kukuruka entzun zuen. Jesusen erranez oroitu, eta ohartu zen huts egin zuela»: isto-



Kontsumismoan daukagu fedea, sinestea. Beti berriago nahi dugu, beti modernoago»

Xipri Arbelbide
Apezpea eta idazlea

rio horretatik dator liburua izenburua, jendea ohar dadin zertan den orain.

Horrez gain, ikastolak nola eta nork sortu zituen gogoratu du Arbelbidek. Hastapenean, sortzaileak girstinoak zirela uste du, eta denborarekin kontra jarri direla. «Pentsatzen dut uste zutela Eliza haiekin batuko zela borroka armatura, baina hori ez zen posible». Orokorkiago, argi du Mendebalde osoan girstinoen sinestea apaldu egin dela. «Orain, denetan beheiti doa sinestea. Arrazoietatik bat da kontsumismoan sartuak garela lepo zintzurerraino; gure fedea, gure sinestea kontsumismoan daukagu. Gauza gehiago erosi, modernoagoak, eta zorion gehiago!», adierazi du.

Sakelako telefonoa erakutsi du eskuan. «Frantzia kalkulatu dute telefonoak bi urte irauten dituela, eta beti berria erosi behar... Beti berriago! Horrek egiten du lurra agortzen ari dugula; lurra-ontasunak agortzen ditugu, eta hori ez da nehundik ere ebanjelioarekin akort izaten ahal».

Hortaz, krisitik ateratzeko, «sinetsi», ebanjelioan «gehiago sinetsi» behar dela uste du Arbelbidek. «Apezpeak ere sartuak gara kontsumismoan. Zenbatek ez dute beren otoitza Interneten irakurtzen? Zenbat apezpe dute auto laburra? Twingo bat aski da. Zenbat lagun joaten dira oporretara Argentinara edo Ameriketara? Ez da debekatua hamar manamenduetan, baina ikusten duzularik zertan den mundua...». Azpimarratu du girstino batek besteez axola behar duela, eta hori bera errepikatu du liburuko hamasei kapituluetan barrena.